



ARRANKUDIAGAKO ELIZALDE PRESTUAREN  
UDALA  
AYUNTAMIENTO DE LA N. ANTEIGLESIA  
DE  
ARRANKUDIAGA  
(BIZKAIA)

**Errepideen Zuzendari andereari zuzenduta.**  
**Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Trafikoko zuzendaritza.**  
**Donostia-San Sebastian kalea, 1**  
**01010-Gasteiz-Vitoria**

Honen bitartez hauxe jakinarazten dizut:

Duela gutxi Arrankudiagatik pasatzen den BI-625 errepidean hainbat obra egin dira, eta obra horien ondorioz eremu horretan zegoen radar finkoa kendu egin zen. Radar hau trafikoko langileek kendu zuten eta ondorengo elkarrizketetan barne sailak radarra berriro leku berean jarriko zuela jakinarazi zigun. Gure aldetik kokapen posible bi pentsatu ditugu, behar duen azpiegiturarekin hornituta eta horrela bere instalazioa egiterakoan obrarik ez egiteko.

Obrak amaitu ondoren, kotxeek abiadura handiz zirkulatzen dutela konturatu gara, kontuan izanik eremu horretan jende asko bizi dela eta bidegurutze bat dagoela. Jadanik hainbat kexa jaso ditugu auzotarrengandik, abiadura kontrolik ezak kezka ikusten dutelako eta istripuez kezkatuta.

Arrankudiagan oso ondo ikusten dugu radar hauek jarri zirenetik betetzen zuten zeregina, abiadura txikiagotzea era garrantzitsuan nabarmentzen dela eta horren ondorioz istripuak jaitsi egin direla.

Gainera, sistema hau ikusten dugu beste tokietan jartzen ari direla eta emaitza positiboarekin.

Beraz, kendu zen radarra berriro toki berean ahalik eta azkarren jartzea eskatzen dugu.

Gure eskaera kontutan izango duzuelakoan, agurtzen zaituztet.

Arrankudiagan, 2011ko apirilaren 4a.

**ALKATEA**  
**Bingen Larizgoitia**